

ENERPLAK



IZENA→ ENERPLAK

LELOA→ Jendea mugitzen, energia sortzen

Gure proiektua plaka piezo-elektrikoak erabiliz, energia garbia sortzean datza. Plaka hauek lurrian ezarriko ditugu, eta haien gainetik pasatzean, energia sortzeko gai izango dira. Energia hau baterietan gorde daiteke, ondoren, edonon erabili ahal izateko. Adibidez, herriko plazetan, eskoletan nahiz norberaren etxeetan.

Plakak ekoizteko, pabiloi bat ezarriko dugu Adunan. Bertan, plaka guztiak ekoitziko dira, eskari guztia asetuz.



Gaur egun, ingurumena zaintzea gero eta garrantzitsuagoa da, eta plaka piezo-elektrikoek aukera ezin hobe eskaintzen digute erronka honi aurre egiteko. Merkatuan lehiakide handirik ez dagoenez eta oso ohikoa ez denez, proiektu hau erakargarria egin zaigu. Gainera, proiektu honek teknologia honen garapena sustatuko du beste edozoin esparrutan erabili ahal izateko eta energia berriztagarria bultzatzeko.

Hori guztia kontuan izanda, konbentzituak gaude proiektu honek gure gizarteari eta, batez ere, planetari positiboki eragingo diola.



Konpetentzia nagusia hurrengo hiru enpresak dira.

- **LG Solar**→ Eguzki-energian espezializatuta daude, batez ere, eguzki-panelak sortzen. 30 urte baino gehiago daramate sektorean eta kalitate handiko produktuak eskaintzen dituzte. Azkeneko urteetan indar handia lortzen ari dira.
- **Panasonic**→ Haien indar nagusia eguzki-panelak sortzea da, azkeneko urteetan energia berriztagarrietan asko inbertitu baitute.
- **Iberdrola**→ Enpresa multinazionala da, energia berriztagarrietan erreferente. Etorkizunerako proiektu askotan sartu dira, bereziki parke eolikoak eta parke solarrak egin nahi dituzte.

Gure enpresak garapen jasangarriko hainbat helburu betetzen ditu.

Nazio Batuak ezarritako helburuak dira, eta haien helburu nagusiak mundu osoan zehar pobrezia ezabatzea, ingurumena zaintzea eta guztiontzako ongizatea sustatzea da. 17 helburu eta 169 xede dituzte, eta arlo desberdinetan lan egiten dute, hala nola, hezkuntzan, berdintasunean, osasunean eta klima aldaketan. Helburu hauek 2030. urterako bete nahi dira.

Horietatik, gure enpresak 3 helburu betetzen ditu.



Lehenengoak, gure enpresak energia irisgarria eta ez kutsagarria eskaintzen du. Energia berriztagarria sortzeko dugunez, zuzenean laguntzen diogu Garapen Jasangarrirako Helburu honi. Energia-iturri garbi erabiltzen dugu, eta horri esker, kutsadurarik sortu gabe energia ekoizten dugu. Modu honetan, ingurumenarekiko errespetuzko energia-eredu bat sustatzen dugu.



Ondorengo helburuak, hiri eta komunitate jasangarriak sustatzen ditu, herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea helburu hartuta. Hirietan zehar jartzeko aukera eskainiko dugunez, guztik bat gatz helburu honekin.



Azkenik, gure enpresa klimaren aldeko ekintza bat dela zihurtatu dezakegu. Natura zainduko dugunez eta baliabide naturalak modu jasangarrian erabiliko ditugunez, beteko dugun beste helburu bat izango da.